



Belaunaldi desberdinetako jokalariek pasio beragaz bizi dute Athleticen lorpena

Durangaldea • Ustaritz Aldekoa-Otalorak eta Jon Morcillok Cartujan ospatu zuten Espainiako Kopako garaipena. 1973an Athletic-egaz Kopa irabazitako Jose Maria Lasak etxean ikusi zuen finala, lagunekin batera. • **20-21**



Azken agurra Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiari

Elorrio • Ehunka herritar batu ziren Elorrioko basilikan, sorrerrikide izandako politikariari azken agurra egin eta senideei doluminak emateko. Era berean, ordezkaritza politiko zabala batu zen elizan. • **10**



"Zornotzan zikoinak izatea pribilegio handia da"

Elkarrizketa • Zikoinak Durangaldeari gustua hartuta dabilzela dirudi. Eskualdean sei ditugu. Bikote bi Zornotzan egonkorta daude, eta beste ar bi Durango eta Elorrio artean dabilzta emea topatu eta kumaldia izateko ahaleginetan. Aitor Galarza basozainak hegazti atsegin hauen misterio guztiak argitu dizkio ANBOTOrri. • **2-3**

Durangaldeko hamabost emakumeren erretratuak batu dituzte erakusketarako



Pintura • Maitane Azurmendik margozturiko erretratuak eta Durangaldeko Wikiemakumeak taldeko kideek osaturiko biografiak batu dituzte Durangoko Arte eta Historia museoan; maiatzaren 5era arte egongo da ikusgai. • **18**



VII. Iurretako Beer Azoka egingo dute zapatuan, Askondon

Herririk herri • Euskal Herrian ekoizturiko estilo askotariko artisauro garagardoak dastatzeko aukera egongo da Iurretan, apirilaren 13an. • **8**

OINARRIZKO MAILA	ERDI MAILA	GOI MAILAK	MASTERRA
APIRILAK 17 18:00etan	 Administrazio Kudeaketa	 Administrazioa eta Finantzak	 Sare-Informatika Sistemaren Admin.
 Elektrizitatea	 Instalazio Elektriko eta Automatikoak	 Sist. Elektroteknikoak Automatizatutak	 Automatizazioa eta Robotika Industriala
 Elementu Metalikoen Fabrikazioa	 Mekanizazioa	 Bizikletan Espezializazioa	 Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

LANBIDE HEZIKETA
izena emon

ATE IREKIAK
Oinarrizko-Erdi Maila Bizikleta
Goi Maila Zibersegurtasuna
18:00etan

www.maristak.com 946810058



bortegien ondoan animalia asko bazten da. Berdin zikoinak, putreak edo kaioak.

Durangaldeak zein eremu eskaintzen dio zikoinari?

Zikoina hona sartu bada, orain hamabost urte Urdaibain zikoina sartzeko proiektu bat egin zelako da. Oso animalia taldekoiak dira. Euretarioren batek inguruan habia bat dagoela ikusten badu, eremua aproposa dela ikasiko du.

Azken urteotan ikusi dugu beste ar bi emea topatzeko ahaleginetan dabiltzala. Durango eta Elorrio artean dabilta

Zornotzako bikoteek non dute habia?

Bikoteetariko batek Andra Maria elizako kanpandorrea du habia. Beste bikoteak Ixer inguruko telefonía antena batean. Azken bikote hau izan zen Zornotzara heltzen lehenengoa. Orain hamar bat urte egin zuten habia antenan. Edozelan ere, zeozer gertatu da. Orain hamar urteko bikotea eta oraingoa desberdinak direla dirudi. Zikoina haiei eraztuna ipini genien, eta oraingoek ez dute halakorik.

Zelakoa da zikoinaren portaera?

Oso animalia adimentsua da, oso azkarra. Monogamoa da, oso fidela bikotekideagaz. Beti. Eta bietariko bati zeozer gertatzen bazaio edo desagertu egiten bada, bestea atoaan ahaleginduko da beste bikotekide bat topatzen. Eta normalean lortu egiten du. Bai emeak, bai arrak. Gogoratzen dut behin, Urdaibain, eraztuna ipinita zeukan zikoina bat tiroz hil zutela. Arra hil zuten. Hori dela eta, emeak alde egingo zuen beldur nintzen. Eta hara, ez. Hamabost egun igarota, emeak bikotekidea topatu zuen.

“Herrian zikoinak izatea pribilegio bat da”

Zikoinak Durangaldeari gustua hartuta dabiltzala dirudi. Eskualdean sei ditugu. Bikote bi Zornotzan egonkortuta daude, eta beste ar bi Durango eta Elorrio artean dabilta emea topatu eta kumaldia izateko ahaleginetan. Aitor Galarza Ibarrodo Bizkaiko Foru Aldundiko basozaina da. Biologian doktorea da eta ornitologia ikertzen eta dibulgatzen lan egiten du

ZIKOINAK • EKAITZ HERRERA

Zornotzako kaleetatik goialdeetara begiratuta presentzia atsegin bat topatuko du ibiltariak. Zikoina bikotea Andra Mari elizako kanpandorreen, eta beste zikoina bikote bat Ixer aldeko antena telefonikoan. Han dituzte habiak. Eta egonaldi hori urtero-urtero errepikatzen dute. Beraz, badirudi zikoinak Zornotzari gustua hartuta dabiltzala. Hegazti atsegin honen jarrera eta misterioak argitzeko, ANBOTOK Bizkaiko Foru Aldundiko Aitor Galarza basozaina elkarrizketatu du. Galarza biologian doktore da. Ornitologia ikertu eta dibulgatzen du. Urdaibain lan egiten du eta bere denbora librean eraztunak ipintzen dizkie hegaztiei.

Zenbat zikoina ditugu Durangaldean?

Gaur egun zikoina bikote bi ditugu, Zornotzan biak. Eta azken urteotan ikusi dugu beste ar bi emea topatzeko ahaleginetan dabiltzala. Bietariko bat Durango eta Elorrio artean mugitzen dabil. Bestea Durangoko Santa Ana elizaren inguruan ahalegintzen dabil habia egiten. Baina oraingoz ez dute emerik topatu. Orain, martxo-apiril aldean izaten da zikoinak Afrikatik Europa iparraldera migratzen duten sasoi.

Beraz, ar horiek biak emea topatzen eta kumeak izaten ahaleginduko dira. Eta topatzen ez badute, beste saiakera bat egingo dute datorren urtean. Adibidez, Gernikako kanpandorre batean ar bat

Hegazti monogamoa da, oso fidela. Baina bietariko bati zeozer gertatzen bazaio, bestea atoaan ahaleginduko da beste bikotekide bat topatzen

bakarrrik egon da, eta aurten emea topatu eta bikotea osatu dute. Durangokoari berdina gerta dakioko.

Zertara datoz Afrikatik hona?

Kumeak izatera. Zikoina zuria Europan zehar barreiatuta dagoen espeziea da. Eremu zabaletan egoten da, landa eremu eta padura inguru zabaletan. Basoa ekiditeko joera du, eta inguru zabaletan topatzen ditu bere elikagaiak. Ez da belarjalea, haragijalea baino. Irensteko gai den animaliak jaten ditu. Berdin arratoi bat zein inurri bat. Sugeak, sugandilak, intsektuak, kilkerak, saguak... jaten ditu.

Zelakoa da zikoinen bizi-zikloa?

Normalean abenduaren amaieran

edo urtarilaren hasieran etortzen dira hona. Helduak direnak, eremua aurretiaz finkatuta dutenak, nahiko goiz etortzen dira. Gero, martxo aldean arrautzak ipintzen dituzte. Txitak apirilaren amaieran jaiotzen dira, gutxi gorabehera. Kumeen hazkundeak hile bi eta erdi irauten du. Uztailean guztiz lumatuta egoten dira, hegan egiteko prest. Eta uztailean erdialdean alde egiten dute hemendik, hegoaldera. Askotan leku batean biltzen dira lehenengo. Adibidez, Iberiar penintsulako hegoaldean. Eta handik, Gibraltarko itsasartetik Afrikara igarotzen dira. Saharaz hegoaldeko lurraz izaten dituzte helmuga.

Urtero errepikatzen dute migrazio joera hori?

Bai. Naturak bere elikagai pikoak ditu. Negu giroan elikagai gutxiago dutenez, zikoinek hego hemisferiora jotzen dute hango beroan janari gehiago topatzeko dutelako. Eta han behean tenperatura hotzagoa egiten duenean, alderantziz gertatzen da, hemengo epelera etortzen dira elikagai bila. Horregaitik, aldaketa klimatikoak eragin handia izan dezake haien bilaketa-sen horretan. Bestalde, azken hamarkada hauetan geroago eta gehiago dira urte osoan zehar Iberiar penintsulan egonkortzen

diren zikoinak. Araba eta Nafarroa aldean, esaterako, batzuk egonkor daude. Berdin Iberiar penintsulako hegoaldean. Eta hor bada beste faktore bat: zaborteziak. Zaborteziak egunero dago janaria. Zikoina gazteek zaborteziak elikagai biltegi modura erabiltzen ikasi dute. Zertarako joan Afrika hegoaldera hemen egunero badute jatekoa? Za-



Zikoinen habia Zornotzako antena telefonikoan, 2010ean.

Orain 200 urte bazegoen jendea gaur egun egiten direnak egiten, baina ordukoek ez zuten aitortzarik izan

Zelan bilatzen dute elkar? Zelan osatzen da bikotea?

Eme bila dabilzan arrek gora begira ematen dute egun osoa, zerura begira. Haien ikusmena gurea baino hiru bider garatuagoa da. Bada, zerura begira daudenean urrutian emerren bat igarotzen dela ikusten badute, arra hegan hasten da gorantza. Zeruan galtzen dira biak, prismatikoen irismenetik kanpora dagoen eremu urrutian. Han ez dakigu oso ondo zein komunikazio izaten duten, baina behekoan, biak badatoz, arra eta emea, orduan bikotea osatu dutelako da. Batzuetan, biak jaitsi arren, emea joan egiten da. Gertatzen dira halakoak. Edozelan ere, arrak saiakera hori egiten du. Saiakerak egiten jarraitzen du harik eta bikotekidea lortzen duen arte. Hori Urdaibain ikusita daukat. Zikoina gazteak Kataluniatik ekarri eta Urdaibain askatu genituen. Gora begiratzeko jarrera hori eta zerutik bikotean jaistekoa hiru bider ikusi dut. Arrano arrantzaleagaz ere halako zozter gertatzen da. Ar gaztea leku batean finkatuta egoten da, eta eme bat ikusten duenean, arrain bat harrrapatu eta emeari eskaintzen dio. Eta hor ere gertatu daiteke arra hiru-lau egunez emeari arraina jaten eman eta emeak gero alde egitea.

Eta habiari dagokionez, zein jokamolde dute?

Oso burugogorak dira. Urtero-urtero bueltatzen dira kumeak izan dituzten habia berera, beti leku berera. Zornotzako antenaren kasua ikustea baino ez dago. Urteetan antenaren bueltan hainbat traman-kulu ipini duten arren, zikoinek, oztopoak oztopo, bertan izaten dituzte kumeak beti. Ez dakit zelan lortzen duten, izan ere, badituzte kumeak izateko leku erosoagoak. Baina lehendik erabilitako habiara jotzen dute beti. Habia lehenengoz egiten dutenean, eta kumeak hil

egiten badira, orduan bai, beste habia batera joaten dira. Baina kumeak ondo izaten badituzte, orduan leku segurua, aproposa eta eroso dela interpretatuko dute. Beraz, hor jarraituko dute datozen urteetan ere. Migrazio bidaian, normalean arra izaten da lehenengoa hona heltzen. Habia prestatzeari ekiten dio, eta handik hamar-hamabost egunera heltzen da emea. Bien artean amaitzen dute habia. Badirudi habia elkarregaz atontzea bikote hartu-eman sendotzeko era bat dela.

Zelakoak izaten dira kumaldiak?

Errutea 1-5 arrautzatak da, baina bi edo hiru ipintzen dituzte normalean. Askotan, bost kume dituztenean, infantizidioa egiteko joera dute. Bost kume aurrera ateratzeko nahikoa elikagai ez dagoela interpretatzen badute, bikoteak kume bat edo bi hilko ditu. Habiatik behe-bera botatzen dituzte.

Zornotzan eta eskualdean zikoinek gure artean izateak zer esanahi du zuretzat?

Zikoinek uztail partean joango dira eta datorren urtean berriro bueltatuko dira. Iruditzen zait hemen zikoinek izatea pribilegio bat dela. Oso gauza erakargarria eta polita da. Ez dakit herritarrak konturatzen diren inguruan duten pribilegioaz. Gero, beti gertatzen da prozesu bera. Orain, zikoina zuria gure artean dagoenean, jende askok ez dio begiratu ere egingo. Baina joatean, gure artetik desageritzean, jendea kezkatu egingo da. Eta berriro ere bueltatzen denean, poztu egingo gara ostera ere. Horrek erakusten du gustatu egiten zaigula zikoina gure artean egotea. Gainera, gure artean dagoen hegaztia da, gertukoa; ez dago basoan ezkatututa. Herri batean zikoinek izatea pribilegio handia da.

Kultura popularrean erroturiko mito batek dio zikoinek Parisetik datozela eta umeak dakartzatela. Nondik dator kondaira hori?

Ez dakit non sorturiko kondaira den. Esango nuke zozter metaforikoa dela. Zikoina urtarril aldean etortzen da, urtea hasten denean. Eta etortze horrek, beste hegazti askoren kasuan lez, bizitza berri bat irudikatzen du, aro berri bat.



Zikoina bikote batek lher aldeko telefonia antena batean du habia.



Bigarren bikoteak Andra Maria elizako kanpandorrean du habia.

arizmendi
ikastola



Lan
bide
HEZIKETA

ZATOZ ATE IREKIETARA!

www.arizmendi.eus

Apirilak 17
17:30etan
Ferixalekuan
(Arrasate)

Gizarte
eta kirol
animazioaren
irakaskuntza

Osasun
larrialdiak

Mikroinformatika
sistemak eta
sareak

Erizaintzako
zaintza
osagarriak

'Harrotze Astea' dela eta, euskara aldarrikatzeko kalejira egingo dute Durangoko kaleetan

Kalejira aldarrikatzailea apirilaren 26an egingo dute 18:00etan, herriko kaleetan zehar. 'Harrotze Astea' apirilaren 22tik 28ra egingo da Euskal Herriaren luze-zabalean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Herrian Euskarazek *Harrotze Astea* egingo du apirilaren 22tik 28ra. Elkartek Euskal Herriko hainbat herritara eramango ditu euskararen ahalduzkoa helburu duten egitasmoak. "Argi dugu euskararen aldeko dinamika kaleratu behar ditugula. Euskarak kalean egon behar du eta kalera irtengo dugu eskualde bakoitzean, herri bakoitzean, dauden gabeziak mahaigaineratzeko. *Euskalduna naiz eta harro nago* leloa oinarri hartuta, harrotze hori irudikatuko dugu", azaldu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Harrotze Astea eguazten iluntzean aurkeztu zuten, Durangoko San Agustin Kulturunean. Antolatzaileek aurreratu zuten,

era askotako mobilizazioak eta ekintzak egingo dituzte Euskal Herrian zehar. Adibidez, apirilaren 24an, manifestazio-desfilea egingo dute Bilboko espaloietan, *Euskaraz bizitzeko, ez gara espaloitik*

Euskal Herrian Euskarazek tokiko dinamika lantzerantz deitu du

jaitsiko lelopean. Hilaren 25ean hezkuntza euskalduna aldarrikatzeko topaketa egingo dute Beskoitzen (Lapurdi), eta apirilaren 26an mobilizazioa egingo dute Donostiako kaleetan, "euskararen

eta euskaldunen erasotzaileak seinatzeko". Azkenik, hilaren 28an, Baigorri (Nafarroa Beherea) Nafarroaren Eguna ospatuko dela aprobetxatuta, Euskararen Errepublika aldarrikatuko dute. Egitasmo guztiak "euskararen aldeko borroka pizteko", euskaldunen "kontzientziak astintzeko", hizkuntzaren aurkako "zapalkuntzaren arduradunak eta konplizeak seinatzeko" eta Euskal Herri euskalduna aldarrikatzeko helburuagaz egingo dituzte.

Durangon ere bai

Euskal Herrian Euskararen aldarrikapenak eskualdean ere izango dute isla. Adibidez, Durangon. Bertako Euskal Herrian Euska-



'Harrotze Astea' Durangoko San Agustin Kulturunean aurkeztu dute, asteon.

razeko kideek azaldu dutenez, "egitasmo nazionalak antolatzeaz gainera beharrezkoa da tokian tokiko ekintzak eta mobilizazioak

egitea". Hori dela eta, apirilaren 26an kalejira aldarrikatzailea egingo dute herriko kaleetan. Mobilizazioa 18:00etan hasiko dute.

La Cuadri del Hospi elkartearen aldeko jaia, zapatuan, Muruetatorren

Segundo Traste taldeak kontzertua eskainiko du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Muruetatorre Auzo Elkartek jaialdi txiki bat antolatu du minbiziaren aurkako La Cuadri del Hospi elkarteari diruz laguntzeko. Zapatu honetarako Segundo Traste musika talde durangarraren kontzertua antolatu dute. Emanaldia Murue-

tatorreko etxebizitza blokeen arteko plazarxoan izango da, Amalur tabernaren ondoan, 19:00etan. Kontzertuak irauten duen bitartean, pintxoak eta edariak zerbitzatu dituzte, 2,5 euroan. Baturiko diru guztia La Cuadri del Hospi elkartearentzat izango da.



2022ko Durangoko jaietan, Segundo Trastek kontzertua eman zuen txosnagunean.

'Locker' armairu adimendunak ipini dituzte merkatu plazan eta Taduko aparkalekuan

Instalazio berri honi eskerrak, udalak "irtenbide praktiko bat" eskaini gura die herritarrei eta herriko negozioei. Aplikazio bat erabilita herritarrek nahieran erabili ahal izango dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko asmoz, Durangoko Udalak *locker* edo armairu adimendun bi ipini ditu udalerrian. Armairuetariko bat merkatu plazaren ondoan dago, eta bestea Taduko aparkalekuan. Instalazio berri honi eskerrak, udalak "irtenbide praktiko bat" eskaini gura die herritarrei eta herriko negozioei. Izan ere, telefonoan instalaturiko aplikazio bati eskerrak herritarrek nahieran erabili ahal izango dituzte gordailuak. Kaxoiatariko batzuek hozkailua dute, elikagaiak eta edariak kontserbatzeko aukera eskainita. Dendak Bai merkatariek elkarteak eskaintako prestakuntza egin ondoren erabili ahal izango dira.



Armairu adimenduetariko bat merkatu plazaren ondoan ipini dute.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 12a
22. urtea - 963. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028

Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Nahia Coello Calzacorta.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangaldeko kirolariak gertuagotik ezagutzeko proiektua sortu dute sare sozialetan: Aldagela

Berbaro eta Mankomunitatea daude ikus-entzunezko proiektu berri honen atzean. Instagram eta TikTok sare sozialetan eskualdeko kirolarien eta klubuen elkarrizketak batzen hasi dira. Elene Barrutia durangarra da proiektuaren gidaria



Orain arte eginiko bideoen karatulak Instagrameko @alda-gela kontuan.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berbaro euskara elkarteak eta Mankomunitateak ikus-entzunezko proiektu berri sortu dute: Aldagela. Instagram eta TikTok sare sozialetara egokituriko proiektua da, elkarrizketa saio arinen bitartez Durangaldeko kirol klubak eta elkarteetako kirolariak (triatloilariak, futbolariak, atletak, saskibaloj jokalariek...) gertuagotik ezagutzeko ahalbidetzen duena. Egitasmoaren bultzatzaileek azaldu dutenez, gazteei zuzenduriko egitasmoa da, euskara hutsean eginikoa. "Klub bakoitza komunitate bihurtzen duten grina, izerdi eta ahaleginetan murgilduko gara. Futbol

zelaietatik atletismo pistetaraino eta askoz gehiago, gure taldeek egiten duten guztia erakutsiko dizuegu, haien eskutik", azaldu du Berbaro elkarteak ohar baten bitartez.

Bideoak ikusgai

Aldagela egitasmoa arduradunek martxo amaieran ekin zioten kanala elikatzeari, eta dagoeneko hainbat bideo topatu daitezke bertan. Tartean daude Abadiño sokatira taldeko Edu Mendizabal entrenatzaileari eta Mugarra triatloi taldeko Lide Azueta kirolariari eginiko elkarrizketak. Horrez gainera, Mugarra triatloi taldeko kideen entrenamenduak gertuagotik ezagutzeko bideoak ere badaude. Aldagela proiektua Elene Barrutia durangarrak gidatzen du, Instagramen eta TikToken arrakasta lortu duen *Barratik Kalera* proiektuko aurkezleak. Instagram eta TikTok kontuetako @alda.gela helbidean harpidetu daitezke ikus-entzunezkoan.

Fumbarri enpresan elkarretaratzea egin dute kaleratu duten langileari babesa adierazteko

CCOOk dioenez, 2023ko urtarriletik hona hiru kaleratze egon dira, aurreko bietan langileak berriro hartu dituzten arren

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Durangoko Fumbarri lantegi parean elkarretaratzea egin zuten eguazten goizean, oraintsu kaleratu duten langileari babesa agertzeko. Dozenaka lagun batu ziren kanporatu duten lankidea berriro hartzea eskatzeko.

Jaime Intxausti CCOO sindikatuko kidearen berbetan, 2023ko urtarriletik hona hiru kaleratze egon dira, aurreko bietan langileak berriro hartu dituzten arren. "Aurreko kaleratze bietan buelta eman diogu egoerari eta langile honen kasuan ere lanean jarraituko dugu bere lanpostura bueltatu dadin; hogeitertetik gora egin ditu lehenengo lerroan beste langileon eskubideen defentsan", gehitu du. Loli Garcia CCOO sindikatuko Euskadiko idazkariak,

bestalde, enpresaren jarrera salatu du. "Enpresaren jazarpena salatu gura dugu; enpresa honetan istripuak egon dira eta zuzendaritzak ez du neurrik hartu. Hain

zuzen ere, horregaitik egiten ari dira sindikatuaren aurka. Hau oso larria da, borroka hau ezin dugu galdu eta gure eskuetan dagoena egingo dugu enpresa honen jarre-

ra mafioso aldatzeko", gehitu du Garciak.

Datorren asteko martitzenean eta barikuan autoen karabanak egingo dituztela aurreratu dute.



Eguaztenean Fumbarri aurrean eginiko elkarretaratzea.

Zaldibarko udalekuan izena emateko epea zabalik apirilaren 22ra arte

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibarko Udalak udalekuan izena emateko epea zabaldu du 2012tik 2019ra artean jaiotako umeentzat. Interesa dutenek apirilaren 22ra arte egin beharko dute inskripzioa, udal bulegoetan. Lau astez eskainiko dituzte udalekuak, ekainaren 24tik aurrera. Orduetgia 10:00etatik 14:00etara izango da. Horrez gainera, umeak zaintzeko zerbitzua ere eskainiko da, 9:00etatik 10:00etara, astean 15 euroko gehigarria ordainduta. Udalekuetako kuota 25 eurokoa izango da umeko eta asteko. Bigarren eta hirugarren neba-arrebaren bat inskribatuz gero, 12na eurokoa izango da kuota. Eskainiriko plaza kopurua baino eskari gehiago badago, udalak zozketa egingo du.



ATE IREKIAK

APIRILAK 16

Asteartea, 18:00

Eman izena!




ArmeriaEskola^x

Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiari azken agurra egin diote Elorrioko basilikan, ordezkaritza politiko zabala batuz

Elorrioko basilika txiki geratu zen Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiaren omenezko hileta elizkizunean. Ehunka herritar joan ziren sorterrikide izan duten politikariari azken agurra egitera eta senideei zein gertukoei doluminak ematera. Era berean, ordezkaritza politiko zabala batu zen elizan



Goian, Ardanza zenaren familia basilikara sartzen. Behean, ordezkaritza politikoaren lehen lerroa.

ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiaren hiletan ordezkaritza politiko zabala batu zen eguaztanean Elorrioko Sortzez Garbiaren basilikan eginiko elizkizunean. Han izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria; Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohi; Patxi Lopez lehendakari ohi; Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarreko presidentea; Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea; Unai Hualde Nafarroako Legebiltzarreko presidentea; Juan Mari Aburto Bilboko alkatea; Eneko Goia Donostiako alkatea; Juan Mari Atutxa, Ardanzak agindutako legealdi bitan segurtasun sailburua izandakoa; Josu Erkoreka egungo segurtasun sailburua eta Bingen Zupiria Jaurlaritzaren bozeramailea. Durangaldeko politikarien artean honako hauek egon ziren besteak beste: Bizkaiko ahaldu nagusi Elixabete Etxanobe, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidente Ana Otaduy, Elorrioko alkate Julene Lazkano, Elorrioko zinegotzi Mikel Arruabarrena, Durangoko alkate Mireia Elkoroiribe eta Durangoko zinegotzi Josune Escota. Hiletaren aurretik, eguazten goizean, hil kaperara ipini zuten Ajuria Enean. Ohore guztiekin eta ikurrin batek

estalita heldu zen hilkutxa Gasteizera. Iñigo Urkullu lehendakariak nabarmendu zuen Ardanzak "euskal gizarteagazko entrega eta konpromiso ereduaren ondarea" utzi duela. Senitarteko eta gertukoei doluminak adierazi ondoren, haren ibilbide pertsonala eta politikoa nabarmendu zituen Urkulluk. Ardanzaren hiru ezaugarri azpimarratu zituen: krisi ekonomiko sakonetik ateratzeko eginiko "etenik bako lana", bakearen aldeko "borroka nekazina", eta "desberdintasunen ginetik elkarrizketa bultzatzeko gaitasuna". Ardanzaren "konpromisoa" eta euskal gizarteari eginiko "ekarpen luze eta zabala" azaldu zituen Urkulluk. Ardanza "lehen mailako erreferente politiko eta instituzionala" izan da Jaurlaritzan emandako 14 urteetan (1985-1999), Urkulluk dioenez.

Ardanza 1985etik 1999ra bitartean izan zen lehendakari, Carlos Garaikoetxearen lekukoa hartuta. Aurretik, alkate izan zen Arrasaten (Gipuzkoa), Franco hil osteko lehenengo hauteskundeetan. Gipuzkoako ahaldu nagusia ere izan zen. Lehendakari ohiaren heriotza ezagutzeagaz batera, Ardanzak euskal politikagintzan utziriko lorratza nabarmendu dute hainbatek.

Amaitu dituzte lanak Zornotzako Larrea eskolako patioan

Hiru hilabeteko lanak egin eta gero, dagoeneko berri dute Larrea eskola publikoko patioa. Zornotzako Udalak azaldu duenez, 115.280 euro ipini ditu proiektu honetarako

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Amaitu dituzte Zornotzako Larrea eskolako patioa lanak. Zornotzako Udalaren esanetan, ikastetxeko kanpoko espazioa "nabarmen" eraldatu da berrikuntzei eskerrak. "Ingurune inklusiboagoa da, naturalizatuagoa, eta egokiagoa ikasleen garapen ludiko eta sortzailerako", azaldu dute. Landareen azalera 332 metro koadro handitu da eta diseinu berriak eremu berde gehiago jasotzen du. Jolas eta atseden eremu berriak ere ipini dituzte. Zornotzako Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, 115.280 euro bideratu ditu proiektu honetara.



Larrea eskolako arduradunak eta Alnhoa Salterain Zornotzako alkatea.

Ur parke berriko lanak amaitu dituzte Berrizen

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

"Berrizburuko ur parkearen helburu nagusia jolasgune berri bat sortzea izan da, familiarra eta freskagarria, mundu guztiak parte hartu ahal izan dezan, espazio zabala eta sarbidea guztiz librea izanik", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak prentsa oharrean. Eraginkortasun energetikoa bi-

latzeko asmoz, zurrusta parkeko ura berrerabili egingo dela azaldu du udalak. 20.000 litroko lurpeko depositu bat ipini dute, ur hori biltegitatu eta ponpaketa sistema baten bitartez gero futbol zelaia ureztatzeko. Lanek 223.604, 93 euroko inbertsioa behar izan dute, eta horietatik 55.960,20 euro Bizkaiko Foru Aldundiak ipini ditu.



Ur parke berriaren infografia.



ibaizabal

IKASTOLA



Batxilergoa. Aurrematrikula

apirilaren 8tik 19ra
izenematea webgunean online

ATE IREKIAK: apirilaren 10ean eta 11n
eman izena webgunean

Lanbide-heziketa:

- Haur Hezkuntzan Goi-mailako Zikloa
- Gizarteratzean Goi-mailako Zikloa

ATE IREKIAK: apirilaren 23an eta 30ean
eman izena webgunean

Izen-emateari buruzko atala webgunean:
www.ibaizabalikastola.eus/matrikulazioa

• Gertuko ikastola:

Errefortzuak, aholkularitza eta orientazioa

• Esperimentazioa > erronka errealetan oinarritutako hezkuntza praktikoa

• Berrikuntza pedagogikoa

• Puntako emaitza akademikoak

• Zerbitzu osagarriak:

- Lanerako Formazioa (ikastaroak)
- Titulu profesionalak (irakaskuntza ez arautua)
- Kafetegia
- Ostua
- Gimnasioa (muskulazio-gela, kirol-ikastaroak...)
- Aparkaleku pribatua
- Jantokia
- Ekintzak
- Garraio-zerbitzua Durangotik kanpokoentzat



Intxaurren kalea 54
48200 Durango (Bizkaia)

Tel: **94 621 58 77**

idezkaritza@ibaizabalikastola.eus

www.ibaizabalikastola.eus

Euskal Herrian ekoizturiko artisau garagardoak dastatzeko aukera egongo da Iurretan, zapatuan, VII. Beer Azokan

Askondon izango da azoka, 17:00etan hasita; Alarma Morea musika taldeak joko du eta Ibon Petralanda sukaldariak jatekoa eskainiko du

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Artisau garagardoan jaia egingo dute Iurretan, apirilaren 13an. Iurretako Beer Azokaren zazpigarren aldia egingo dute eta bertaraten direnek Euskal Herrian ekoizturiko artisau garagardoa probatzeko aukera izango dute. Garai Agro Brewery (Garai), Saltus Brewing (Murgia) eta Atala Brewing (Burlata) garagardogileak egongo dira Askondon.

Estilo askotariko garagardoa eskainiko dute. Garagardo argia, ilunagoa, IPAk garagardo beltza... Ibon Berriozabalgoitiak azaldu duenez, "urteek aurrera egin ahala denerik eskaini behar dela ikusi dugu". Bide horretan, aurten, Gironatik etorritako STA PAU garagardogileen garagardo garrantza dastatzeko aukera ere egongo da. Azken urteetan egin duten legez, garagardogile guztiek batera lan egingo dute, barra bakar batean. "Barraren barruan zein kanpoan oso giro polita sortzen da. Garagardogileek aukera dute bezeroekin zuzenean berba egiteko, baina baita beste garagardogileen

artean jarduteko ere. Azoka honek duen balio erantsia da zelanbait", dio Berriozabalgoitiak. "Beste garagardogileekin egoteko momentua ere bada azoka", gaineratu du.

Zortzi txorota

Azoka 17:00etan zabalduko dute. 17:30ean V. IBA igel txapelketa hasiko da. 20:00etan eta 23:30ean garagardo sorta bana zotz egingo dute. Eta 21:00etan Alarma Morea taldeak kontzertua emango du. Horrez gainera, gauerdian, azoka

"Beste garagardogileekin batera egoteko momentua ere bada Iurretako Beer Azoka"

amaitu arte, sukaldea zabalik egongo da, Ibon Petralandaren eskutik.

Zortzi txorota ipiniko dituzte eta momentu bakoitzean zein garagardo eskainiko den erakutsiko dute, arbel baten bitartez. "Dagoen jendearen eta momentuaren ara-



Aurreko edizio bateko Beer Azokaren argazkia.

bera, garagardoa aldatzen joango gara", argitu du Berriozabalgoitiak. Azoka zabalik dagoen bitartean, Les Sauvajak ipiniko du musika.

Sendotuz doan azoka

Iurretako Beer Azokak zazpigarren aldia izango du aurten. "Sei-

Zortzi txorota ipinita, estilo askotariko artisau garagardoak eskainiko dituztela azaldu dute

nale ona da hainbeste urtean antolatu izana. Funtzionatzen duela ematen du, eta indarra hartzen dabilela", adierazi du Berriozabalgoitiak. Zertan hobetu daitekeen aztertzen jarraitzen dutela ere gaineratu du, eta atek zabalik dituztela aldaketak egiteko.

350 euro Izurtzako kartel lehiaketaren irabazlearentzat

Proposamenak maiatzaren 17ra arte aurkeztu daitezke

IZURTZA • J.D.

Izurtzan lehiaketa hasi dute irail hasieran ospatuko dituzten jaiak iragarriko dituen karteleko irudia zein izango den erabakitzeke. Maiatzaren 17ra arte dago proposamenak aurkezteko epea, udaletxean. Irudi irabazleak 350 euroko saria jasoko du. Kartelak egiteko erabili beharreko teknika librea da, baina formatu bertikalean aurkeztu behar da

eta 'Izurtzako Jaiak 2024' testua izan behar du. Halaber, jaietako ezaugarriren bat jaso edo adierazi behar da kartelean. Epaimahaia kultura eta jaien batzordeko kideek osatuko dute. Oinarri guztiak udaletxean eta udalaren webgunean daude eskuragarri. Baliteke udalak iraileko jaietan erakusketa bat antolatzea lehiaketara aurkezturiko kartelekin.



Oinarri guztiak udaletxean eskuratu daitezke.



Astxiki mendira joango dira domekan.

Axpetik Astxiki mendirako irteera antolatu du Asuntzek, domekarako

Indarberrituta, Atxondoko mendi taldeak hainbat ekimen egingo du urtean zehar, domekako irteera abiapuntu dela

ATXONDO • J.D.

Hiru bat urtean nahiko geldirik egon eta gero, Atxondoko Asuntze mendi taldea indarberrituta buelatu da eta hainbat ekimen antolatuko du urtean zehar. Esaterako, domekan, Axpetik Astxikirako irteera familiarra egingo dute. 10:00etan irtengo dute, Axpeko plazatik. Bueltan mokadu bat

jateko aukera egongo da, plazan bertan. Aurrera begira, ekainean, Baztanerako irteera egingo dute lehenengo, eta jaietako mendi martxa ondoren. Urrian Anboto Kilometro Bertikalaren txanda izango da. Azarorako BTT martxa bat antolatzeko asmoa dute eta abenduaren 31n Anbotora igoko dira, urtea agurtzeko.

Etxebizitzen alokairurako laguntza eskaera zabalik, Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Mañarian alokairuan bizi direnek alokairuaren zati bat ordaintzeko diru laguntzak eskatu ditzateke udalean. Apirilaren 19an amaituko da eskaerak

Apirilaren 19ra arte egin daitezke eskaera; errentaren arabera erabakiko da laguntzaren zenbatekoa

egiteko epea. Diru laguntzak errentaren arabera erabakiko dira. Urteko errenta zenbat eta baxuagoa, orduan eta handiagoa da jaso daitekeen laguntza, beti ere gehienezko kopuru batera heldu arte. Bestelakoan, hainbat baldintza bete eta dokumentu aurkeztu behar dira udaletxean laguntza eskuratu ahal izateko. Eskari orria udaleko webgunean eskuratu daitezke eta gai honen inguruko ordenantza udaletxean dago eskuragarri.

www.gualbiasesores.com



- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

2023ko

ERRENTA AITORPENAREN kanpaina martxan!

Egiguzu kontsulta konpromezurik gabe

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



Anbotokideen txokoa

APIRILEKO ZOZKETAK




Andereño, umeentzako antzerkia. Arriolan, apirilak 21ean, 17:00etan.



Kortxoaren dilema antzerkia. Zornotza Aretoan, apirilaren 20an, 20:00etan.



AKADantz Gazteei zuzendutako hiri-dantzen lehiaketa-erakusketa. Arriolan, apirilak 27an 18:00etan.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Errigora otzara.



BBK Karpin Fauna bi sarrera.

Okm:
batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Abadiñoako Udalak amianto hondakinak identifikatu ditu errekan

Zaldua errekan, trañapadura aldean, pilaturiko hondakinak kendu eta trenbiderako bidea ixteko eskatu du udalak

ABADIÑO • A.B./M.Z.

Zaldua errekan ibilguan, Trañapadurako industrialdetik igarotzen den tartean, hondakinak modu irregularrean pilatu diren puntu bat identifikatu du Abadiñoako Udalak. Besteak beste, osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen amianto hondakinak ere bai. Eskumena URA agentziarena denez, txosten tekniko bat egin eta hondakinak kentzeko eta garbitzeko eskatu diote.

Trenbideko zubiaren azpian pilatu dira hondakinak, eta ber-

tan adintxikikoak ibiltzen direla nabarmendu dute udal ardura-dunek. Hori dela eta, udalak Euskotreni ere eskatu dio ingurua ikuskatzeko, "jendea modu irregularrean ez sartzeko eta segurtasuna bermatzeko", argitu dutenez.

"Arazoa behin betiko konpondu arte inguru horretatik ez ibiltzeko gomendatzen diegu herritarrei. Ez dugu eskumenik horri konponbidea emateko, baina kezkatzen gaituen puntu bat da", adierazi du Edurne Maguregi alkateordeak.



Zaldua erreka. URA AGENTZIA

1936ko Abadiñoako Biktimen Memoria berreskuratzeko ikerketa hasiko dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak jakinarazi duenez, Durango 1936 Kultur Elkarteak eta Gerediaga Elkarteak orain gutxi bultzaturiko ikerketa batek erakusten du 1936ko martxoaren 31ko bajen erregistroak lau pertsona "Abadiñoako bonbardaketan hildako gisa" identifikatzen dituela.

Jimi Jimenez historialariak eginiko ikerketak Durangoko bonbardaketan hildako 213 laguni izen-abizenak jartzea lortu du. Eta, udaletik azaldu dutenez, tartean Abadiñoako zeinbat lagun dago. "Erregistroan, Abadiñoako bonbardaketan hildako gisa agertzen dira Estéfana Aguirre Bikuña, Teodora Arieta-Araunabeña Maiztegi, Feliciano Arrieta Jainaga eta Antonio Garaigordobil Berrizbeitia", jakinarazi dute.

"Badakigu ikerketak egiten dabiltzana urte horietan jazotako hainbat gertakariren inguruan, baina, egia esan, ez daukagu gure udalerrian zentratutako ikerketarik, eta egin egin behar dugu", azaldu du Mikel Urrutia alkateak. Hori horrela, Durango 1936 elkarteagaz eta Gerediaga-gaz ikerketa martxan ipintzeko aukerak aztertu dituztela esan dute, eta urte horietan izan ziren gertakariei eta gerrak Abadiñon utzi zituen biktimei buruzko dokumentazioa jasoko dutela esan dute.

Bihar, zapatua, 'Apirileko Feria' ospatuko dute Abadiñon, Gaztetxean

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Gaztetxeko kideek 'Apirileko Feria' antolatu dute biharko, apirilak 13. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta 12:30ean emango diote hasiera, bermutagaz. Lehenengoa Gaztetxean bertan hartuko dute, eta, ondoren, Abadiñoako tabernetatik ibiliko dira. 14:30ean bazkaltzeko batuko dira eta 17:00etan De Norte a Sur taldeak dantza erakustaldia egingo du. Ondoren, 'mojitoak eta rebujitoak' salduko dituzte. Djekin emango diote amaiera egunari.

Abadiñoako Gaztetxeko kideek andaluziar jantzi joateko deia egin diete herritarrei. Jantziei buruzko lehiaketa egingo dutela azaldu dute.

Ortu ekologikoetarako izena emateko aukera Mallabian

Interesa duten herritarrek datorren eguaztenera arte, apirilak 17, izango dute aukera eskaria egiteko

MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2013an ortu ekologikoak egokitu zituzten auzolanean Mallabian, Mallazpin, eta bertan libre dauden zazpi partzela herritarren eskura ipini ditu Mallabiko Udalak. Interesa duten herritarrek datorren eguaztenera arte, apirilak 17, izango dute aukera eskaria egiteko, Mallabiko udaletxean. Hala ere, eskaria egin baino lehenago, ortu ekologikoetarako baldintza agiria jaso gura dutenek udala@mallabia.eus helbidera idatzita eskatu dezakete. Eskaria egiteko, ezinbestekoa da Mallabian erroldatuta egotea.

Igor Agirre Mallabiko alkateak jakinarazi duenez, ortu

ekologikoetako plazak normalean lau urterako esleitzen dizkiete herritarrei. Lursailak erabiltzeaz gainera, Mallazpiko ortu ekologikoetan dagoen

Interesa dutenei lau urterako esleitzen dizkiete partzelak ortu ekologikoetarako

txabola ere erabiltzeko aukera izango dute. Erabiltzaile bakoitzak bere armairutxoia izango du bertan, eta hainbat tresna ere bai, denen artean erabiltzekoak.

Garaik Landare eta Lorezaintza Azokaren hamargarren edizioa hartuko du apirilaren 21ean

Euskal Herri osotik ailegaturiko hamazortzi landare edo lore ekoizle herriko plazan batuko dira, 10:00etan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garain urteroko hitzordua den Landare eta Lorezaintza Azokak urteurren borobila beteko du aurten. Udalak eta Urkiola Landa Garapenak azokaren hamargarren edizioa antolatu dute apirilaren 21ari begira. Guztira, hamazortzi ekoizle, artisau, landare edo lorezaintza enpresak parte hartuko dute azokan. Besteak beste, lore apaingarriak, lorategiak, fruta-landareak, baserriko makinak eta ortuko landareak ikusi eta eskuratu ahal izango dira bertan. Horrez gainera, Durangaldeko lau baserriko ekoizleren produktu batzuk ere egongo dira eskuragarri. Hala nola taloak, gazta, garagardoa, kontserbak, ogia, gozoak, txakolina eta sagardoa.

Aurreko urteetan legez, aurtengo edizioak ere zaindegi edo kontsigna zerbitzua izango du erosketetarako. Era horretan, azokara doazenez gordailu batean utzi ahal izango dituzte erositakoak, azokaz modu erosoan

gozaten jarraitu eta etxera bueltatzeko ordua heldurikoan produktuak osterara ere hartzeko. Zerbitzu hau erabiltzen duten denen artean Durangaldeko ekoizleen produktuekin osaturiko otzara bat zotz egingo dute. Irabazleak

Durangoko merkatu plazako Ertartie dendan jasoko du otzara.

Landare eta Lorezaintza Azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da martxan. Eguraldiak laguntzen ez badu, frontoian egingo dute feria.



Garaiko Landare eta Lorezaintza Azokaren edizio bat.

Otxandioko Gaztetxeak Udaberri jaia ospatuko du, apirilaren 20an

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Otxandioko Gaztetxeak hainbat ekitaldi batzen duen egitaraua prestatu du apirilaren 20rako. Udaberri Jaia ospatuko dute, aldarrikapenei ere tartea eginez. Izan ere, Castillo parke eolikoaren aurkako mendi martxagaz hasiko dute eguna, 09:30ean.

Poteo girotua hasiko dute 13:00etan, eta gero bertso bazkaria egongo da. Sare sozialen bitartez edo Gazte Asanbladakoei esanda eman daiteke izena. Jolasak eta koktelak prestatuko dituzte arratsalderako, eta jarraian karropoteoa hasiko da. Eguna kontzertuekin amaituko dute. Trikoma eta Neallta Fola taldeek joko dute, 22:00etan, gaztetxean. Ondoren, DJ Waryk ipiniko du musika.

EH Bilduk "ilusioaren botoa" eskatu du Zornotzan

HAUTESKUNDEAK • EKAITZ HERRERA

EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen martitzenean Zornotzan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen testuinguruan. Bertan izan ziren Bizkaiko hautagaitza osatzen duten Iker Casanova eta Edurne Benito del Valle zerrendakideak. Casanovak adierazi zuenez, EH Bilduk "ilusioaren botoa" eskatzen du

"beste batzuek beldurrarena" eskatzen dutenean.

Asteburura begira hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, Berrizko Olakueta plazan egingo dute hauteskunde ekitaldia, 19:00etan. Zapatuan, 12:30ean, Traña-Matienako okindegiaren alboko plazan, eta domekan, Zaldibarko udaletxeko plazan, 13:00etan.



EH Bilduk Zornotzan eginiko ekitaldia.

EAJren hauteskunde ekitaldiak Zornotzan eta Durangon

Jeltzaleek hauteskunde kanpainako bigarren astebururako mitinak antolatu dituzte Durangaldean

HAUTESKUNDEAK • JONE GUENETXEA

Durangaldea bete-betean sartuta dago hauteskunde kanpainan. EAJk mitin bi antolatzeko baliatuko du kanpainaren bigarren asteburua. Gaur, apirilak 12, ekitaldia egingo dute Zornotzako Zelaieta parkean, 19:00etan. Ainhoa Salterain

Zornotzako alkatea, Maitane Ipiñazar eta Itxaso Atutxa izango dira hizlariak.

Bigarren ekitaldia Durangon egingo dute, zapatuan, 12:00etan, Ezkurdin. Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak, Maitane Ipiñazarrek eta Itxaso Atutxak parte hartuko dute.



Javier De Andrés PPko lehendakariagaia Durangon izango da gaur

HAUTESKUNDEAK • J.G.

Hauteskunde kanpainaren bigarren asteburura begira, Alderdi Popularrak ekitaldi politikoa antolatu du gaurko, Durangoko Gran Hoteleko lorategian. Hauteskunde kanpainako mitin horretan Carlos García Durangoko hautagaiak eta Javier De Andrés Alderdi Popularreko lehendakariagaia parte hartuko dutela iragarri du alderdiak. Hitzordua 18:30ean izango dela iragarri dute.

Carlos García Durangoko PPko zinegotziak ere parte hartuko du ekitaldian



Kontsultatu gure programa hemen:
mirengorrotxategi.eus

MIREN GORROTXATEGI

Elkarrekin Podemoseko lehendakariagaia



AUKERATU

EZKERRA

BOZKATU

elkarrekin
Podemos |



Inor ere ez da aurkeztu Otamotzena auzoguneko taberna kudeatzeko lizitaziora

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hile batzuk pasatu dira Durangoko Otamotzena auzoan gizarte etxea zabaldu zutenetik. Herria Auzo Elkarteko eta Otamotzena auzoguneko kideak buru-belarri ibili dira hile hauetan kultur eskaintza bat osatzen, baina oraingoz ez dute bertako taberna kudeatzeko ardura hartuko duen inor topatu. Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera zuen taberna kudeatzeko proiektua, martxoaren erdialdean. Orain,

proposamenak aurkezteko epea agortuta, hautagairik aurkeztu ez dela jakinarazi dute udal iturriek.

Hori ikusita, udalak prozesua berrabiaraziko du datozen asteetan. Gogoratu duenez, taberna berri-berria da eta azpiegitura prest dago berehala martxan ipintzeko. Ustiatzeko iraupena urtebetekoa izango da, lau urtera arteko luzapen bategaz. Udalak sektoreko profesionalak animatu ditu.



Otamotzenan orain hile batzuk zabaldu zuten gizarte etxea.

Durangaldea asteen

Elorriko elkarretaratzea egingo dute 2021eko udan San Josen atxiloturiko sei gazteak babesteko

ELORRIO | Elkarretaratzea apirilaren 19an izango da, 19:00etan, Elorriko plazan. Elorriko gaztetxeak sare sozialen bitartez eman du mobilizazioaren berri. Gaztetxeako kideen esanetan, hile honetan epaituko dituzte 2021eko udan San Jose inguruetan atxilotu zituzten sei gazteak. Gau hartan, Ertzaintzak 18tik 28 urtera bitarteko sei gazte atxilotu, eta han batu ziren gainerakoak sakabanatu zituen.

Book Trailer lehiaketaren hurrengo edizioa maiatzaren 9an egingo dute, Frai Juan Zumarraga institutuan

DURANGO | Durangoko 700 bat ikaslek parte hartuko dute Book Trailerren zortzigarren lehiaketan. Lehenengo saioa dagoeneko egin dute, eta hurrengoa maiatzaren 9an izango da, Frai Juan Zumarraga institutuan.

Bestalde, lehiaketako sariak banatzeko ekitaldia, maiatzaren 19an egingo dute, Plateruenean. Bertan Book Trailerrik onenak sarituko dituzte.



Abadiñon irisgarritasuna eta segurtasuna hobetu dute hainbat puntutan, 65.000 euroko inbertsioa eginda

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak 65.000 euroko inbertsioa egin du herriko hainbat puntutan irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko. Udaletik esan dutenez, hauek dira egindako lanetariko batzuk: San Prudentzio kalean, Zure Denda parean, espaloia konpondu dute; baita Trañaetxosten ere. Lebarioko industrialdean eta Astolako futbol-zelaiaren ondoan aparkalekuko zorua konpondu dute, eta Mendiolako pilotalekuaren sarrera ere hobetu dute, besteak beste. Horrez gainera, diru partidarik garrantzitsuena landa-auzoetarako sarbideak hobetzeko erabili dutela azaldu dute; Goxentziako eta Mendiolako parte batean, ur bilketa eta errepedeko zorua hobetzeko.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).



Apirilaren 8tik 19ra arte

Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 428 80 00

www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D ereduari

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.
- Psikologia zerbitzua.





Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria






ZENBATU ANIMALIAK




LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea sekuentziari jarraituz.



KOMIKIA

Asmatu istorio bat eta marraztu ezazu laukitxoetan. Idatzi elkarrizketak bunbuiloetan.





'Loti ederrak'

IKUSKIZUNA IURRETA :: Apirilak 12

Loti Ederraren estereotipoak apurtzen dituen lana Iurretan

Glu Glu antzerki konpainiak Loti ederrak antzezlanaren taularatuko du gaur Iurretan, Loti Ederra ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena. Oraingo honetan, ipuin ezagun hau eszenatokira eramateko, bere alderdi sexista eta tradizionalistak ezabatu dituzte, eta Loti Ederraren estereotipoak hankaz gora ipini dituzte. Ibarretxe kultur etxean izango da emanaldia, 17:00etan hasita.

Galder Perezek idatzi du gidoia eta Ugaitz Alegria da zuzendaria. Ipuin klasikoak gaur egun eztabaida handia sortzen duen gai bat lantzeko baliatu dute: haur zein nerabeen sare sozialen mendekotasuna. Era berean, antzezlanaren arduradunen esanetan, gizartearen inposaturiko edertasun estereotipoak apurtzea dute helburu. "Horretara jokatu gura izan dugu, ipuinari buelta eman eta kontatu zigutena buruz behera ipinita", gaineratu dute.

Apirilaren 12an

BERRIZ antzerkia

'Teilatupean' (Lanku), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO narrazioa

'Amalurra. Sustrai ahaztuak' ahozko narrazioa eta dantza saioa (Imanol Aguirre eta Aritz Lasarguren), 19:00etan, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO antzerkia

'Almazenean' (Txalo Produzioak), 20:00etan, Arriola antzokian.

ELORRIO jaiak

Zentzu okerra + Zatekeen, 22:00etan, gaztetxean.

IURRETA bakarrizketa

Julen Axpe, 19:00etan, Abadetxean. Lasterbidean egitasmoaren eskutik.

Apirilaren 13an

ABADIÑO jaia

Apirileko Feria. Bermuteoa, 12:30ean, Abadiñoko Gaztetxean hasita. Bazkaria, 14:30ean. De Norte a Sur taldearen dantza erakustaldia, 17:00etan. Ondoren, mojito eta rebujitoak. DJ JJEK, 21:00etan. Feriako traje txapelketa.

BERRIZ ikuskizuna

'Itzaliko bagina' 19:00etan, Kultur Etxean (Araitz Katarain, Janire Arrizabalaga eta Izaro Bilbao).

DURANGO musika

Segundo Traste, 19:00etatik 21:00etara, Muruetorreko plazan. La Cuadri del Hospi elkartearen aldeko ekitaldia.

DURANGO erakustaldia

Skate erakustaldia, 18:00eta, Landako skate parkean. Skate eta tatoo tailerrak, 16:00etan.

ELORRIO jaiak

Durungaldea Uztabarrizten IV. Bertso Zirkuitua: Aroa Arrizubieta + Bittor Salterain + Txaber Altube + Xabat Galletabeitia, 20:00etan, Gaztetxean. Gai-jartzailea: Paulo Salterain. Elektronika Gaua: Jkin Alonso + Lamikiz + Sierritx eta Kifi Boy, 23:00etan.

IURRETA irteera

Bizikletan irteera Otxandiora, 09:00etan. Iurretako Txirrindulari Elkarte.

ZORNOTZA antzerkia

'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez' (Ttanttaka), 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 14an

ABADIÑO irteera

Euskadiko hegazti habiagileen atlas berriari buruzko berbaldia eta landa-irteera, Urkiolako parketxean. Izena eman behar da: 946 814 155 / urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus

ABADIÑO azoka

Ekoizle eta artisauen azoka, 10:30etik 14:00etara, Txanporta plazan. No Somos tu Rollo agro-rap taldeak girotuta.

DURANGO antzerkia

'Kutxartean' (Paraiso), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA irteera

Bizikletan irteera Gatikara, 09:00etan. Iurretako Txirrindulari Elkarte.

Apirilaren 14ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Miradas del mundo' (Mari Luz Martinezen olio-pinturak), Ezkurdiko aretoan.

Apirilaren 16an

ELORRIO tailerra

Sukaldaritza tailerra, 17:30ean, Ametsolan.

Apirilaren 18an

MAÑARIA ipuinak

'Kukumiku' (Saroa Bikandi), 18:30ean, Kultur Etxean.

ZORNOTZA kontzertua

Txuma Murugarren, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 19an

ABADIÑO bakarrizketak

Ana Goitia, Mirari Martiarena eta Ion Martinez 'Txiki', 19:30ean, probalekuan (Lasterbidean).

ELORRIO kontzertua

Zoe Igartiburu + Rudiger, 22:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia

'Conquistadores', 19:00etan, Kultur Etxean

ZORNOTZA kontzertua

Arene 6 + Streetwise, 23:15ean, Zelaietan.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• Los pequeños amores

barikua 12: 19:30

domeka 14: 19:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• Menudas piezas

barikua 12: 18:30 / 21:00

zapatua 13: 17:00 / 19:15 / 21:30

domeka 14: 17:00 / 19:30

astelehena 15: 18:00 / 20:15

martitena 16: 18:00 / 20:15

eguztana 17: 19:00

• Sangre en los labios

barikua 12: 18:30 / 21:00

zapatua 13: 17:00 / 19:15 / 21:30

domeka 14: 19:30

astelehena 15: 18:00 / 20:15

martitena 16: 18:00 / 20:15

eguztana 17: 19:00

• Monkey Man

barikua 12: 18:30 / 21:00

zapatua 13: 19:15 / 21:30

domeka 14: 17:00 / 19:30

astelehena 15: 18:00 / 20:15

martitena 16: 18:00 / 20:15

• Emma y el jaguar negro

zapatua 13: 17:00

domeka 14: 17:00

• Tosca (opera)

eguztana 17: 19:00

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• Bob Marley: One love

zapatua 13: 20:00

domeka 14: 20:00

astelehena 15: 20:00

• Corre Tiger, corre!

domeka 14: 17:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• Dune: Parte Dos

barikua 12: 20:00

domeka 14: 20:00

astelehena 15: 20:15

• La aventura infinita

domeka 14: 17:00

• La estrella azul

martitena 16: 20:15

Gremioen gida



Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

“Emakume hauek gai izan baziren, gu zergaitik ez? Ondo legoke erakusketaren bitartez bultzadatxo hori ematea”

Durungaldeko hamabost emakumeren biografia eta erretratuak ipini dituzte Durangoko Arte eta Historia museoan; maiatzaren 5era arte egongo da erakusketa



Maitane Azurmendi Barrio

Margolaria

MUNGIA | 1978

MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO

'Durungaldeko emakumeen erretratuak' erakusketak gure inguruetak hamabost emakumeren biografia batzen du. Durungaldeko Wikiemakumeok taldeko editoreen lana da erakusketaren abiapuntua, izan ere, emakumeen eta gizonen biografien arteko oreka lortzeko lan egiten dute. Bide horretan, Maitane Azurmendiren ekarpena gakoa izan da, artista bizkaitarrak emakume horien erretratuak egin ditu eta; hamabost biografia eta erretratu batu dituzte erakusketarako.

Nondik dator erakusketaren ideia?

Emakumeen Wikipediako Durangoko kideak euren lana egiten hasi zirenean, argazkirik ez zutela edo kalitate txarrekoak zirela ikusi zuten. Nire lana sare sozialen bitartez ezagutzen zuten, eta horrela hasi ginen. Kasu batzuetan, argazkirik ere ez zegoen, eta, beraz, ikerketa lana ere egin behar izan nuen. Interesatu egiten zait marrazten ditudan emakumei buruz informazioa edukitzea. Erakusketaren

ideia Marisa Barrenarena izan zen; azken finean, ia 200 erretratu egin ditut. Ez Durungaldekoenak bakarrik, baita Euskal Herrikoenak eta mundu mailakoenak ere. Kartelean, adibidez, Björk agertzen da, eta galdetu didate ea durangarra den (barrez). Askok egin ditut eta eurek erabaki zuten Durungaldeko emakumeen ilustrazioekin erakusketa egitea. Aurrera begira,

Orain 200 urte bazegoen jendea gaur egun egiten direnak egiten, baina ordukoek ez zuten aitortzarik izan

beste erakusketa batzuk egitea pentsatzen gabilta. Askok harritu naiz lan hau egitean, orain 200 urte bazegoelako jendea gaur egun egiten direnak egiten, baina ordukoek ez zuten aitortzarik izan. Askok ezagutu ere ez ditugu egiten. Erakusketa

nahiko sinplea da, zuzena, interesgarriak iruditzen zaizkigun datuak eskaintzen ditugu, erretratuaz gainera; nortzuk ziren, nongoak ziren, zein urtetakoak... Behin lana eginda, lan hori erakustea izan zen Marisaren ardura, ahanzturan ez geratzea.

Zelan erabaki duzue zein erretratu sartu erakusketan eta zein ez?

Marisa sare sozialetatik ezagutzen nuen, emakumeen urtegunak eta wikipediako profilak zabaldu eta ezagutarazten dituelako. Rigoberta Menchurenak eta horrelakoenak ipini izan ditu, eta nik erretratu egin, neure kabuz. Ezagutzen nituen emakumeenak egin ditut, baina baita ezagutzen ez nituenenak ere. Gero, denen artean joan gara proposamenak egiten. Aukeraketa Marisak berak egin zuen eta ez zen erraza izan. Oihana Azkorbebeitia, adibidez, gaur egungoa da, eta bere erretratu bertan egotea gura nuen, kirola eta Euskal Herria daramatzan lekuetara daramatzalako.

Emakume eta lagun modura, erakusketan egotea gura nuen.

Ondo dago gaur egungoak historiakoekin nahastea.

Bai, hor daude erraketistak, adibidez. Denerik dago: albatari bat, emagin bat, ETAko kide bat, armadako beste bat... eta erakusketan egon ezin diren guztiak ere.

Marrazketa digitalerako jauzia izan da gaxena niretzat. Oleoa egitetik nator, batez ere

Zelako harrera izaten ari da erakusketak?

Esango nuke niri proposamena egin zidatenean gertatu zitzaidan berdina gertatzen ari zaiola jendeari; hau da, emakumeak egiten zutena hori jakiteagatik harritzea. Eta jendeak, aurpegi ezagunak ikustean, jende berria aurkezten dizu. Eta horrek mugimendu

bat sortzen du. Nire liburu biak kaleratu dituenak, Igor Meltxorrek, antzeko ideia bat du buruan. Nik adibide bera ipintzen dut beti, eta ez diet meriturik kendu gura Lur Errekondo harrijasotzaileari edo gaur egungo emakume aizkolariari, baina orain urte asko ere bazeuden emakume harrijasotzaile eta aizkolariak. Baina orduan ez zegoen sare sozialik, eta telebistan ez zieten kasurik egiten. Horrela, ahanzturan gertatu dira. Albatariak ere bazeuden egon, baina ez zieten lanik egiten uzten. Garai hartako emakumeek ez zuten babesik. Gaur egun gatxa bada, imajinatu zer izango zen orduko denboretan!

Aitortza hori aldatu egin da?

Lehen emakumeek baino askoz ere errazago dugu, baina gauza batzuk konplikatuak dira oraindino. Garai hartan egiten zutena txapela kentzeko modukoa da, egiten zutenaz gainera baserriko kontuez, umeez eta beste hainbat gauzez ere arduratu behar izaten zutelako. Guk ere egin behar izan dugu gure bidea, baina beste babes bat izan dugu, beste aukera batzuk. Traba ugari, karrera amaitu hala ere, eta lana egiteko oztopoak izaten zituzten gero. Bide asko zabaldu zituzten, eta hori ez zaie aitortzen; nik neuk, adibidez, ez nekien horrela izan zela. Eta, esan dudan moduan, horrelakoei eskerrak zabaldu zaigu bidea gainerakooi. Ni, adibidez, hogeituzte metalgintzan aritu naiz beharrez; amama orain lau urte hil zen, baina aurretik esan zidan bera gai izan zela Espainiako gerran jostun aritzeko, alargun, eta haurdun egonda ere aurrera egiteko. Zelan ez naiz, ba, ni gai izango? Emakume hauek gai izan baziren, gu zergaitik ez? Ondo legoke erakusketaren bitartez bultzadatxo hori ematea.

Zein izan duzu erronkarik handiena?

Marrazketa digitalerako jauzia izan da gaxena niretzat. Oleoa egitetik nator, batez ere. Arkatzagaz ere marraztu izan dut. "Edo hemen sartu edo atzean geratuko naiz", pentsatu nuen, eta horri ekitea erabaki nuen. Eta horrek asko erraztu du lana. Sare sozialek ere asko lagundu didate. Zuri-beltzean margotzen jarraitzen dut, baina koloreekin-eta probatu dezaket. Hala ere, brotxagaz margotzen jarraitzea dut gustuko, eta horretan ere ahalegintzen naiz.

Araitz Katarain mallabitarraren 'Itzal(iko) bagina' emanaldia estreinatuko dute zapatuan Berrizen

Bertsoa eta antzerkia uztartzen dituen 'Itzal(iko) bagina' lana estreinatuko dute zapatuan, apirilak 13, Berrizen; 19:00etan izango da emanaldia



Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitz Katarain.

BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitz Katarain bertsolariak bertsoa oinarri duen *Itzal(iko) bagina* emanaldia eskainiko dute zapatuan Berrizen. Bertsolariak da emanaldiaren abiapuntua, eta eskolarte bateko finalean kokatzen da, hortik eta heldu arorako trantsizioa. "Hiru pertsonaiaren trama kontatzen du, bertsolarien munduagaz lotura duena; eskolartekotik helduarora pasatzen den bide horretan gorpuzten eta zeharkatzen dituzten gatazkak azaleratzen dira", azaldu du Araitz Katarain bertsolari mallabitarrak.

Emanaldia erronka bat izan dela azpimarratu du gazte mallabitarrak: "Aurretik, eskolan baino ez dut egin antzerkia, ezer serioz ez, eta alde horretatik erronka handia izan da niretzat. Hala ere, Iraitz Lizarragak asko lagundu digu". Lizarragak egin ditu zuzendaritza lanak. Horrez gainera, modu kolektiboan lan egin ahal izatea ere nabarmendu gura izan du Katarainek: "Geu arduratu gara guztiaz, eta horri garrantzia eman gura genioke".

Lokatx Loreak kolektiboaren parte dira Katarain, Bilbao eta Arrizabalaga, eta *Friki saioak* izene-

ko emanaldiekin hasi ziren euren kabuz lehenengo ekintzak antolatzen. "Orain dela uda bi sortu genuen kolektiboa; bertso munduan gure lekua topatu guran elkartu ginen hirurok. *Friki saioak* egin eta gero, Lankutik idatzi ziguten, euren laguntzagaz bertso emanaldi bat egiteko proposamenagaz", azaldu du mallabitarrak. Zapatukoa estreinaldia izango den arren, aurretik Loraldia jaialdiaren barruan emanaldi bat egin zuten. "Orduan egin genuenetik aldaketa txiki batzuk prestatu ditugu entseguetan. Gogotsu gaude, jendeak hainbesteko lanaren emaitza ikusteko. Urduri

gaude, eta pozik, aldi berean", azaldu du Katarainek.

Udazkenean gehiago

Barrurako emanaldia da *Itzal(iko) bagina*; hortaz, uda aurretik emanaldi gutxi batzuk gehiago emango dituztela azaldu dute. Horieta lehenengo maiztaren 5ean, Villabonan (Gipuzkoa); 19:30ean izango da, Gurea aretoan. Bigarren aukera maiztaren 25ean izango da, Lemoan (Bizkaia); emanaldi hau ere 19:30ean izango da, kultur etxean. Oraindino lotzen dabilta udazkeneko datak.

Gai librea

Tabarra

Lololo lolololo lololo
danontzat ez zara geuria.
"Herritik" sortu zinen arren
gizona da neurria.

Anaidi gorri-zuria
zelai orlegian matxirulis-
moan Euskal Herria.
Banatu daigun guztiok
alua ezker eskuin:
Athletic, Athletic
ez zara nagusia!
Altxa ahotsak!

Famoso, famoso
espainolez indarra.
«Campeón» eske kapitaina,
ze eredu, ze herri traizio?

Aupa zirkua!
Aurrera aberatsen gurtza!
Bilbo ta Bizkai guztia
diru publikodun festan.
Aupa zirkua!
Gola kapitalismoak!
Bandera gorri-zuria
dirua.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Durangaldean gremioekin,
zerikusia duen negozioirik baduzu,

IPINI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago 94 621 79 02 telefono zenbakian



“1973an ere faboritoak ginen, 'irabazita dago' zioten, baina jokatu beharra zegoen”

Jose Maria Lasak Espainiako Kopa bat irabazi zuen Athletic egaz, 1973an. Zapatuko finala etxetik ikusi zuen, lagunekin



FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Jose Maria 'Txema' Lasak (Andoain, Durangon bizi da, 1948) badaki Athletic egaz Espainiako Kopa irabaztea zer den. 1973an lortu zuen eta oraindino ondo gogoan du zaleek taldeari etxera bueltan egin zioten harrera. Zapatuko finala Durangoko etxean ikusi zuen, lagunekin.

Etxetik bada ere, Sevillara joandako zaleen euforia beragaz jarraitu zenuen finala?

Ez nintzen fidatzen. Mallorca aintzat hartzeko moduko taldea zela uste nuen. Talde polita dauka. Ez da Real Madril edo Bartzelona, baina bai kategoria berean jokatzen duen taldea. Athleticzaleen artean bazegoen finala irabazi egingo zen sentsazioa, baina nik banekien gaxa izango zena.

Zure usteak partiduan zehar konfirmatu ziren.

Atzean ez zuten zulorik utzi eta guri koskatu egin zitzaigun arean sartzea. Bigarren zatia beste kontu bat izan zen. Markagailuan atzetik, partiduari buelta eman behar zitzaion nahitaez. Presioa ondo egin zuten, Mallorcak ezin zuen atzetik irten eta horrela heldu zen gola.

Eta hainbeste final galduta, azkenean gozatzeko ordua heldu zen.

Bai, eta jokalariek lasaitua hartuko zuten. Bartzelonaren edo Real

Madriren kontra galtzea gauza bat da, baina Mallorcaren kontra galtzea dezepzio handia izango zen, zaleek konfiantza osoa zuten-eta garaipena lortuko genuela. Gure sasoiaren berdina gertatu zitzaigun.

Castelloni 2-0 irabazi zenioten Vicente Calderon zelaian. Zergatik diozu berdina gertatu zitzaizuela?

Castellonek denbora gutxi zerman Lehen Mailan. 1973an faboritoak ginen eta "irabazita dago" zioten zaleek. Baina partidua jokatu beharra zegoen eta aukerak sartu egin behar ziren. Final batean gauza asko gertatu daiteke.

Orduan txanponaren aurkia bizi izan zenuen, eta 1978an ifrentzua. Betsiek penaltietan irabazi zizuen finala.

Betis gaur egungo Mallorcaren antzeko taldea zen. Jokalari politik zituen. Orduan ere geuk irabaziko genuela uste zen, faboritoak ginen, baina Sevillara joan zen Kopa.

Zelakoa izan zen 1973ko finalaren osteko ospakizuna?

Madriatik bueltan Mirandan eman genuen gaua. Biharamunean, makina bat kotxek eta motok lagundu zioten gure autobusari. Bizkaiko lehenengo herria Otxandio zen. Zenbat jende! Beteta. Txanpaina atera ziguten. Urkiola jaisten suziriak jaurti zituzten. Durangon, Ezkurdi ingurua jendez beterik zegoen. Iurretan, paper-fabrika inguruan, baserritarrak aitzurrekin ortuan zebiltzan. Gu gentozela ikustean, aitzurra utzi eta korrika batean etorri ziren gu animatzera. Irudi hori ondo gogoan dut. Atxurin autobusetik jaitsi eta kamioi batera igo ginen udaletxera joateko. Ikaragarria izan zen. Athleticen afizioa berezia da.

“Zaleek ilusio ikaragarria zuten. Irabazita, taldeak pisu handia kendu zuen gaineratik”

Jon Morcillok, urduri, Iñaki Williamsen lagun bat besarkatuta ikusi zuen Berenguerren penalti erabakigarria



Jor Morcillo (Zornotza, 1998) Amorebietan jokatzen dabil, Athletic egaz utzita. Amorebietak barikuan jokatu zuen ligako partidua. Beraz, hurrengo egunean Sevillara joan eta finala Cartujan ikusteko aukera izan zuen jokalaria zornotzarrak.

Zelan bizi izan duzu Athleticen balentria hau?

Finala jokatu baino egun batzuk lehenago taldeko jokalaria batzuekin bazkaldu nuen. Urduri baino gehiago, finala jokatzeke gogotsu sumatu nituen. Gero, joan zen barikuan Amorebietagaz aritu ondoren, Jandro Castro entrenatzailea ondo portatu zen gugaz eta egun biko atseden eman zigun. Horri eskerrak joan nintzen Sevillara. Han aurkitu nuena itzela izan zen. Hiri

osoan eta Athletic Hirian zoramena zen nagusi. Izkina guztietatik sartu edo irteten ziren zale zurigorriak. Afizio moduan, bejondeigula! Cartujan jokalarien senitarteko eta lagunekin ikusi nuen finala.

Zer iruditu zitzaizun Athleticen partidua?

Lehenengo zatian apur bat urduri irten zuten, normala den moduan. Aurretik Athletic egaz hainbat final galdu izanaren presioa sentitzen zuten, beharbada. Mallorcaren gola kolpe gogorra izan zen. Bigarren zatian, ostera, nagusi izan ziren, batez ere golaren ondoren, eta penaltietara heldu aurretik finala irabazteko aukerak izan zituzten.

Penaltiak Mallorcaren plana ziren, ez Athleticena. Zelan bizi izan zenuen?

Beldur apur batez eta oso urduri. Harmailetatik desberdin bizi da dena. Zelaian edo aulkian zaudenean, taldekideengan babesten zara, eurekin komentatzen dituzu zure ardurak. Zorionez, beste momentu batzuetan kontrako izan dugun zortea aldeko izan dugu.

Penalti guztiak sartu zituzten. Erabakigarria, Berenguerrek.

Lehenengo zatia Oihan Sanceten lagunekin ikusi nuen, eta bigarrena Iñaki Williamsen lagunekin. Iñakiren lagun bat besarkatuta nengoen Berenguerrek penaltia jaurti zuenean. Estu geunden biok eta baloia barrura joan zenean... ez dakit zelan adierazi sentitu nuena.

Gero ondo ospatuko zenuen, ezta?

Bai, jakina! Jokalariak zeuden hotelera ere joan nintzen, denak zoriontzera. Oso une polita izan zen.

Jokalariek gaineratik pisu astuna kendu dutela uste duzu?

Bai, liberazio bat izan zen. 40 urte denbora luzea da. Kopa oso maitatua da Bilbon, eta zaleek ilusio ikaragarria zuten. Taldeak pisu handia kendu du gaineratik, bai.

“Talde honek gure sasoikoak ere ordezkatzan dituela sentitzen dut; guri ere atera digute arantzaxoa”

Ustaritz Aldekoa-Otalorak 2009ko finalean Athleticen jokalariek ezin izan zuten zale moduan ospatu du orain

Ustaritz Aldekoa Otalorak (Abadiño, 1983) sei denboralditan jantzi zuen Athleticen talde nagusiko elastikoa. 2009an Kopako finala jokatu zuen taldeko partaidea izan zen. Joan zen zapatuan, zale moduan, Cartujan ospatu zuen bere bihotzeko taldearen garaipena.

Zelako esperientzia bizi izan zenuen Sevillan?

Eguenean joan nintzen, finala jokatu baino egun bi lehenago. Urtebetean Betis taldean jokatu nuen eta lagunak ditut han. Finala aspaldiko lagunak ikusteko ere aprobeixatu nuen. Gero, bazkide naizen aldetik ez zitzaidan sarrerarik egokitu, baina banuen sarrera bat jokalarik ohi modura finala Cartujan ikusteko.

Athleticzaleen 'inbasioa' dioten bestekoa izan zen Sevillan?

Bai, ikaragarria izan zen. Zapatuan, begiratzen zenuen tokira begiratzen zenuela, kamiseta zurigorriak ikusten ziren. Desproporzio handia zegoen zalego bien artean. Gu Betis kaleko apartamentu batean geunden eta handik bista ona geneukan. Balkoitik garbi ikusten zen athleticzaleen uholdea.

Zelan bizi izan zenuen Berengueren penaltia?

Begiak busti izan nituen lehenengo penalti jaurtiketatik ber-

tatik. Niretzat emozioen errusiar mendi bat izan zen. Ingurura begiratuta, ikustekoak ziren zaleen aurpegiak. Batzuk, zelaiari bizkarra emanda, zaleen oihuekin enteratzen ziren gertatzen zenaz.

Jokalariek lasaitua hartuko zuten azkenean Kopa irabazita.

Bai. Athleticen askotan jo du ate, eta azkenean bota du. Askotan ahalegindu da, etsi barik. Porrot bakoitzaren ondoren zutuntzeko eta berriro ahalegintzeko gaitasuna erakutsi du, eta horrek meritu handia du nire ustez. Azkenean, hainbeste finalerara helduta, denbora kontua zen bat irabaztea. Merezitako garaipena da eta ezin zaie gehiago eskatu, ez taldeari ezta zalegoari ere. Denok bultza egin dugu. Zaleak sekula ere ez dio bizkarra eman taldeari, eta beti erakutsi dio babes, baita une gogorretan ere.

Taldeko veteranoekin kointziditu zenuen taldean; hala nola Iker Muniainegaz eta Oscar de Marcos-egaz.

Asko pozten naiz eurengaitik ere, bene-benetan. Final asko izan dira galdurikoak eta merezi zuten garaipen hau. Sentipen bat dut. Talde honek gure sasoikoak ere ordezkatzan dituela sentitzen dut. Hau da, guri ere atera digute barruan geneukan arantzaxoa.



Ustaritz —eskuman— Asier Ormazabal eta Aitor Ramos jokalarik ohi eta lagunekin, Cartujan.

Athleticen final dezente jokatu du, baina sentipen aldetik aurtengoa eta 2009koa iruditzen zaizkit bereziki. Ados zaude?

25 urte finalera heldu barik, jendea ilusio ikaragarriagaz zegoen Sevillaren kontrako finalerdi irabazi genuenetik. Final hura

mugarri bat izan zen taldearen ibilbidean. Kopa irabazi genezakeela sinetsi genuen. Txinparta bat piztu zen. Harrezkero, final asko jokatu dugu eta zaleen eta jokalarien arteko kimika handitzen joan da, zapatuko punturik gorenera heldu arte.



Javier Aguirre entrenatzailearen sustraiak lurretaraino heltzen dira

Javier Aguirre Onaindia Mallorca taldeko entrenatzaileak (Mexiko Hiria, 1958) sarritan nabarmendu du bere familia athleticzale amorratua dela. Ama Gernikakoa da eta aita Ispasterrekoa. Baina Aguirreren familiaren aurreko belaunaldiak lurretagaz ere badute lotura. Entrenatzailearen aitita Iurretan jaio eta Gernikara ezkondu zen. Entrenatzailearen birraitak, Onaindia abizenekoak, Panadería Onaindia sortu zuen Arandiako zubia-
ren ondoan. Ildo horretatik, Mallorcako entrenatzaileak familia zabala dauka Iurretan inguruan ere. ANBOTOk Jose Luis Ferreriagaz berba egin du. Javier Aguirreren senidea da, birramama eta birraitita bera dute eta. Argazkian baieztatu daitekeen moduan, oso familia zabala izan zen. 1915eko San Migeletan, lehenengoz batu ziren. 86 lagun elkartu ziren, hiru belaunalditan banatuta.

Jokaldia

Korrika zerbaiten alde

Munduan zehar hainbat errebindikazio egiten da korrika eginda. Euskal Herrian, adibidez, milaka eta milaka euskaltzalek euskararen alde egiten dugu korrika urte birik behin, Korrikan. Aurtengoa ere itzela izan da, mundiala! Are mundialagoa Korrikaren hasieran desobedientzia ekintza bati eskerrak 36 migratzaileari muga zeharkatzen lagundu zitzaielako. Hortxe beste errebindikazio bat. Ikaragarri gustatu zitzaidan horren harira Gari Garaialdek twitter-en idatzitako txioa: *gure bizitzari zentzua ematen dion gauzarik bada, hau da haietako bat (...) Euskarak ez du Bidasoan mugarik ezagutzen eta jendeak ez du Bidasoan hesirik merezi.*

Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideek ere ez dute hesirik mere-



Oihana Azkorbeitia Urizar

Mendi lasterketak

Korrikaren hasieran, desobedientzia ekintza bati eskerrak, 36 migratzaileari muga zeharkatzen lagundu zitzaien

Hainbat lasterketa sortu da, jendartean kontzientzia pizteko eta erronka sozialei aurre egiteko

zi, eta horiexen alde ere egingo dugu korrika Lasterbidean ekimenaren hamargarren edizioan. Aurten, gainera, gure eskualdean egingo da lasterketa, Abadiñon, ekainaren 14an eta 15ean.

Urtero emakumeon eskubideen alde ere egiten dugu korrika. Lilakrosean (Martxoak 8) eta Emakumeen Lasterketan (Azaroak 25), eta tinko jarraituko

dugu geure errebindikazioekin.

Azken urteetan beste hainbat lasterketa ere sortu da, jendartean kontzientzia eta sentsibilizazioa pizteko, eta erronka sozialei aurre egiteko. Hortxe daude gaixotasun arraroen aurkako lasterketak, ELaren kontrakoak, haur minbiziaren kontrakoak... eta, aldi berean, pertsonaren duintasunaren aldekoak.

Amaitzeko, mendi lasterketa solidario bat aipatu gura nuke: Gamiz-Fikako Burdin Hesiko Lasterketa. Proba honek kultura, memoria historikoa, kirola eta natura batzen ditu, baina batez ere lasterketa solidarioa da. Bertan batzen duten dirua Ezkerraldea-Gurutzeta ESIari emango diote, minbizi eta gaixotasun kronikoen kasuetan laguntza pediatrikoaren arreta humanizatzeko. Lasterketa ekainaren 22an da eta hantxe izango gara.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

IURRETA: ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua.
256.000 €-TIK AURRERA.

// AUKERA

IBAIZABAL: Logela bakarreko apartamentua, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 220.000€**

IURRETA: 114 m². 4 logela eta komuna. 2 terraza. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 246.000 €**

FRANZISKO IBARRA: 105 m². 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia. **C.E.E=E 335.000 €.**

// ALOKAIUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 € / 650 € HILEKO**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ERROTARITXUENA: Erdi berria. 3 logela horma-armairuekin eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=D 359.000 €**

ANDRA MARI: Atikoa. Sukalde-egongela, logela eta komuna duxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 185.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela eta 2 komun. 70 m²-ko terraza. Hegoaldea. garajea aukeran. **C.E.E=E 320.000 €**

ASTXIKI: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=E 380.000 €**

IURRETA: 3 logela eta komuna duxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 145.000 €**

DURANGO: 111 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **C.E.E=F 226.000 €**

DURANGO: Berriztatutako pisua. 2 logela, komuna duxarekin, sukaldea eta egongela handia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 155.000 €**

SASIKOA: 131 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia. Eguzkitsua. Ezin hobea. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzen sartzeko moduan. **310.000 €.**

KOMENTUKALEA: 70 m². 2 logela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=F 187.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ERRENTXU: 85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E=F 181.500 €**

ZALDIBAR: 85 m². 3 logela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 164.000 €**

IURRETA: 70 m². 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 170.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

PINONDO: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

BARRENKALEA: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 69,99 m²
3 logela
ANBOTO KALEA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. Egoera onean. ITE-a pasatutakoa.
194.500 € C.E.E:E.



DURANGO 90,90 m²
LAUBIDETA: (2004.an eraikitakoa) bi solairutan: Lehenengo solairua: 67 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta komuna. Bigarren solairua: 23,90 m² espazio diafanoan eta komuna. (laugarren logelarako aukera). Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Argitsua eta ikuspegiak dituena. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak eta zerbitzuek eta herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajea aukeran: + 20.000 €. (ixteko aukerarekin).
315.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 117 m²
4 logela
AMBROSIO MEABE: (1.991 urtean eraikia). 117 m² útiles. Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Etxebizitza altua. Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.
319.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA 73 m²
3 logela
TXINURRISOLO: 73 m². Egongela-sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-hegoaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuek gertu. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzak behar.
169.000 € C.E.E: E



MATIENA 82 m²
3 logela
SAN PRUDENZIO: Egongela, sukalde jantzia, komuna. (berriztatua, duxarekin) eta despentsa (komuna egiteko aukerarekin) 2 terraza. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea) Argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuek gertu. (aparkalekua, eskola, komertzioak...) 10 m²-ko ganbara, igogailutik sarbide zuzenarekin.
174.000 €-tik aurrera + BEZ



MATIENA 105 m²
3-4 logela
ERAIKUNTZA BERRIA: 105 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logelakoak. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
280.000 €-tik aurrera + BEZ

//BERRIAK DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara. garajea aukeran. **320.000 € / E.E.Z=E**

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERROTARITXUENA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000€ / E.E.Z=D**

EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Igogailua. Berrikuntzak behar ditu. **175.000 € / E.E.Z=B**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KALEBARRIA: 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Igogailua. **LEHEN 195.000 € / ORAIN 175.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikituko baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

Botikak

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE
2C - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA
6 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONGO
22 - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO
ETORB. 2 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE
6 - ELORRIO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO
31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI
3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 14 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA
9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 17 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONGO
22 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 18 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA
6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOÁ, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorionak, **txakurzale!** Urteguna ondo ospatu izana espero dugu.



Zorionak, **Irati!** Besarkada handi bat Oier, aita, ama eta etxeko danon partez. Askok maite zaitugu!

Zorionak, **Galder!** Martxoaren 29an 2 urte. Jarraitu horren alai eta zintzoa izaten. Muxu asko, potxolo.

Zorionak, **Irati!** 13 urte jada! Muxu handi bat familia guztiaren partez!

Zorionak, **Lier,** zure 10. urtebetetzean! Primeran pasatu eta jarraitu horrelako mutiko jatorra izaten! Patxo pila bat familiko guztion partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 24° / 12° ☀️

ASTELEHENA ↓ 16° / 11° ☁️

EGUAZTENA ↓ 15° / 11° ☁️

DOMEKA ↓ 21° / 12° ☀️

MARTITZENA ↓ 14° / 10° ☁️

EGUENA ↓ 17° / 10° ☀️

DBH - BATXILERGOA

- Orokorra
- Arteak:
 - Arte plastikoak, irudia eta diseinua
 - Musika eta arte eszenikoak
- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

**GELA EGONKORRA ETA ZEREGIN
IKASTEKO GELAK**



BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULAZIO
EPEA:

**APIRILAREN 8tik
APIRILAREN 19ra arte**

HEZIKETA ZIKLOAK

- **ERDI-MAILAKO ZIKLOA:**
 - Natura Inguruneke gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria
- **GOI-MAILAKO ZIKLOA:**
 - Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria

"Athletic ia erlijio bat da niretzat, loa kendu didana askotan"

Lander Zurinaga 'Titin' eta bere motoa oso ezagunak dira Zornotzan. Athletic futbol taldeak San Mames Berrian jokatzeko dituen partidu guztietara joaten da

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Lander Zurinaga athleticzalea da, du-darik barik, eta Amorebietaren jarraitzaile fina. Bihotza erdibituta duela aitortu du. Sevillan jokaturiko finala etxean ikusi zuen, eta herrian ospatu ere bai. Orain 20 urte hasi zen motoa atontzen, eta erosi gura izan dioten arren ezergaitik ere ez ei du salduko. "Aduriz ere ibilitakoa da motoan, ume-tan", esan du.

Ezin ukatu athleticzalea zarela. Zer da zuretzat Athletic?

Jaio nintzenetik naiz athleticzalea. Aita Miraflores gainan bizi zen, eta orduan Athleticen kamioa bertatik pasatzen zen Madriletik zetorrenean. Hiru urte nituenetik irten dut aitagaz harrera egitera. Geroago, Basauritik zetozenean, Etxebarriko Boquete auzotik igarotzen ziren. Aita Jesus Garai jokariaren laguna zen, eta beti joaten zen Athleticen partiduetara. Athletic ia erlijio bat da niretzat, loa kendu didana askotan (barrez).

Athleticek behar zuen halako zeozer. Azken urteetan gaztetxoak Real Madrilen eta Bartzelonaren kamisetekin ikusi ditugu

Cedrun eta Iribar ikusiz hazi zinen zu. Etxebarrira joan ginenean jokariaren entrenamenduak ikusten genituen. Orduan ez zegoen Lezama. Iriondok entrenatzen zituen. Karmelo Cedrunek jokatzeko zuen orduan, eta gero Iribar etorri zen, Basconiatik. Ateen atzean zeuden ortuetatik baloiak hartzen genituen mutikotan, 8-10 urteagaz. Gainera, Iriondok San Mameserako sarrerak ematen zizkigun.

Domekero joaten ginen. Han jaio zen Bilbao Athletic. Kuadrillako gehienak Etxebarrin entrenatzen ziren, futbol eskolan. Gero, Lezama eroan zuten eskola.

Zuk ez zenuen futboleko jokatu?

Etxebarrin jokatu nuen, baina pilotari izateko bidea hartu nuen. 1970ean Bizkaiko Herriarte txapel-dun izan nintzen, finala Iñaki Gorostizaren eta Castilloren aurka irabazita. Pilotari errioxarragaz nahastu izan naute inoiz, baina anaiarengandik datorkit gaitzizena. Etxean dozena bat txapel eta 20 bat garaikur ditut.

Futbola ala pilota duzu gurago? Zein aukeratuko zenuke?

Pilota partidu on bat ikusita Athleticen partidu bat ikusita baino gutxiago sufritzen dut. San Mames Berrian jokatzeko duten guztietan joaten naiz, eta ahal izan dudanean kanpokoren batera ere joan naiz. Sarrera eduki dut Cartujako Kopako finala ikustera joateko, baina gazte bati eman nion. Hainbat finaletan egon naiz.

Ikusi zenuen gabarra 1984an?

Enpresa batean txofer lan egiten nuen, eta nagusiagaz eta bere

ilobagaz gabarra itsasadarrean zehar eginiko bidean jarraitu nuen, CX Palace batean, Athleticen banderagaz atean, Portugalgeteko zubitik Arrontegiko zubiraino. Handik Begoñara joan ginen.

Orain ere ez duzu hutsik egin.

Jakina. Umeengandik hartu dut poza. Athleticek behar zuen halako zeozer. Urteetan gaztetxoak Real Madrilen eta Bartzelonaren kamisetekin ikusi ditugu. Orain, berriro ikusten dira Athleticen kamisetak. Oso garrantzitsua da. Polita.

Bereziki gogoan duzun partidu bat? Eta jokari bat?

1983-1984 liga irabazi zuenean, Realaren aurka jokaturiko azken partidua. Ondoan nituen realzaleak ere hunkituta zeuden, negarrez. Bestalde, mailari justuan eutsi genion partidua ere badut gogoan. Negarrez irten nuen. Jokalarien artean, Uriarte itzela zen.

Lau-hortza

Markel Onaindia Txabarri Kazetaria



Zer egin dau atletijek?

"Zer ein dau atletijek?" galde-tzen zuen domeketan amamak. Futbola gustuko ez izan arren, emaitzagatik interesa agertzen zuen, eta esango nuke kirolatik aparte beste motibazio bat zegoela galdera haren atzean. Euskal Herriko sukalde eta egongela askotan antzekoak entzungo ziren, seguru. Herriatik sortu zen Athletic, geuria, Euskal Herriaren erakusgarri izateko.


Zapatuko euforian, hunkitu egin nintzen Sevillan zeuden lagunengan pentsatzean. Zebat akordu, senide eta lagun ondoan jesarrita bizitakoak, memorian metatuta. Kirolak badu alde sozial bat eta, hemen, Euskal Herriaren nazio ikuspegiarekin ere lotzen dugu sarritan: euskal selekzioaren faltan harrobiaren filosofiari eusten zaio; errepideak ikurrinez betetzen dira, munduaren aurrean lurralde bat irudikatze; pilota eta herri kirolak bultzatzen ditugu, nortasun propio baten autoafirmazioaren beharra dugulako. Normaltasun faltu batean bizi gara, baina ez ahaztu menperaturiko herria dela gurea.

Bueno, bai, egunotan gogaituta dagoen jendea ere ulertzen dut. Futbolaren industria kapitalismo basatiaren parte da, eta hedabideetan hartzen duen dimentsioa gehiegizkoa da. Munduan gauza asko dugu aldatzeko, noski.


Baliteke futbola ez izatea Iribarrek eta Kortabariak ikurrina atera zuten sasoiko gauza bera. Hala ere, zeinen ederra den jendearen barru-barrutik datorren poz kolektiboa. Eta, sinistu gura dut, Iribarrek zapatuan isuri zituen malkoen isladan herri bat ikusten dela oraindik ere.



Lander Zurinaga Angulo 'Titin' Jubilatua ETXEBARRI | 1952



SAN ROKE BARRIA



2. fasea salgai

2 logela, **garajea barne**
235.000 € ^{-TIK} _{+BEZ}

3 logela, **garajea barne**
295.000 € ^{-TIK} _{+BEZ}

Erreserbatu hitzordua hemen:
www.sukia.com

SALMENTA BULEGOA
Astxiki Kalea, 1. Durango

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa